

GALTZA BERRIK

(ESAKERA ZARRETIK BIURTUA)

Aiton gizagaiso bat
 zerbaiten eskian
 Prakaš-ek ikusirik
 otzak iya illian,
 galtza zar batzuk eman
 zizkan bein batian
 esanaz: «tori, eta
 galtz oiek kasikan
 estrañatu gabiak
 dira oraindikan;
 ez ditut ipiñi bi
 aldiz besterikan.

—¿Bi aldiz?

—Bai, aitona,
 bi bider bakarrik

jantziko ziran oiek
 egin ezkeroztik;
 ta ezpadu sinisten
 au egiya danik
 ara, nola liteken
 esango diyoť nik:
 —«Galtz oiek lendabizi
 jantzi nitunian
 ez nituen soñetik
 kendu bost urtian,
 eta gerora berriz
 bigarren aldian
 ibilli ditut beste
 sei edo zaspian».

EMETERIO ARRESE